

Apirilak 2, asteartea

EMANALDIA: Euskalduna naiz eta arraro nago
TALDEA: Barry Manley eta Aitor Txarterina
DISZIPLINA: Bakarriketak
LEKUA: Udal aretoa
ORDUA: 21:00
SINOPSISIA: Barry Barrezek eta Baltziskuetak hiruna bakarriketa saio eskaintzen dizkigute Euskal Herrian Euskarazen eskutik. Umorea oinarri, euskaldun izatearen eta euskaldun jokatzaren ondorioen gainean arituko dira bi antzezleak. Horretarako, euskaraz bizitzearen esperientzia kontatzen dute bi umoregileek lan honetan.



Apirilak 3, asteazkena

EMANALDIA: Iragan Perfektua
TALDEA: Horman Poster Kolektiboa
DISZIPLINA: Antzerkia
LEKUA: Udal aretoa
ORDUA: 21:00
SINOPSISIA: Nola gogoratu bizi izan ez duzuna? Imaginen bitartez? Zer gogora dezakegu? Imaginak baino ez? "Iragan Perfektua" zuri-beltzean egindako memoriaren eragiketa da. Gure bizitzak markatu eta aldi berean ezezagun zaigun 70. hamarkadan zeharreko ibilbidea: nolakoak izan ziren haurtzaroko beste urte horiek, urte bortitz, arduragabe horiek?



Apirilak 4, osteguna

EMANALDIA: Aktibo Toxikoa
TALDEA: Bederen Bat
DISZIPLINA: Bakarriketa
LEKUA: Udal aretoa
ORDUA: 21:00
SINOPSISIA: Hor dator "Bat", Bat Jauregi. Bere maleta eta guzti, jendearen artean azaltzen da. Gure mundu desastre honi, errebaso bat emango dio. Bat Jauregi politikaria izandakoa da. Erretirua hartutako gizasemea. Krikiak bete betean harrapatu du. Baina ez dago geldirik egoteko prest. Ekintza bat egitera dator.



Apirilak 5, ostirala

EMANALDIA: Biba Zorrixen Izurritie!!!
TALDEA: Abarka Antzerki Taldea
DISZIPLINA: Antzerkia
LEKUA: Plaza (eguraldi txarrarekin frontoia)
ORDUA: 22:00
SINOPSISIA: Markina-Xemeingo Abarka antzerki-taldearen ikuskizun berria. Ander Lipus-ek zuzendutako antzerki-lana Joseba Sarriandiarren 'Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako' ipuin-bilduman oinarritua dago.



Apirilak 6, larunbata

EMANALDIA: Publikoari Gorroto
TALDEA: Huts Teatroa
DISZIPLINA: Antzerkia
LEKUA: Plaza (eguraldi txarrarekin frontoia)
ORDUA: 22:00
SINOPSISIA: Aktore bat, bi ikusle, agertoki bat. Besterik ez du behar antzerkiak: hortik aurrera hasten den jokoan, dena da posible. Teatroari buruzko hausnarketa jostalari baten moduan hasten da obra hau, publikoarekiko keinuz eta umorez; pixkanaka, ordea, arimaren barrunbe ilunak joango dira agertzen: krudelkeria, bortxa, botere-harremanak... giza izatearen amildegi ertzera iristeraino.



EMANALDIA: Bostenborren kontzertua
TALDEA: Bostenbor
DISZIPLINA: Musika
LEKUA: Gaztetxea
ORDUA: 24:00
SINOPSISIA: "Ahots sendo eta sakonak ematen dio gorputza Bostenbor taldeari. Erraietatik ateratzen diren kantak, sabeletik abestutakoak, ondo pasatzeko eta gorputza mugiarazteko eginak. Bihotzetik eta lasai eran ere badaude batzuk. Musika ulertzen duten moduan eta ateratzen zaien bezala eskaintzera datoz."




VIII. ARTE DRAMA TOPA KETAK

apirilaren 2tik 6ra, Aulestin

Antolatzaileak



Aulestiko Udala



ArteDrama
Euskal Laborategia

Laguntzaileak

